



Estatutuak





Bizkaiko Autismoa eta Beste Autismo Espektoaren Nahasteak Ditutzenen Gurasoen Elkartearen Estatutuen

2011ko Martxoa



Pintor Antonio Guezala margolaria, 1 - 2 Bajo
48015 Bilbao
Tel. 944 755 704
Fax 944 762 992
autismo@apnabi.org
www.apnabi.org

LEHEN KAPITULUA

ALDAKETA

1. artikulua. - Asociación de Padres de Afectados de Autismo y otros Trastornos del Espectro Autista de Bizkaia / Bizkaiko Autismoa eta Beste Autismo Espektoaren Nahasteak dituztenen Gurasoen Elkartearen estatutu hauek (APNABI Elkarte, 1.076 erregistro-zenbakiduna, eta 1978ko abuztuaren lehen erregistratua) aldatu egin dira elkarte-eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoari eta Euskadiko Elkartei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legeak xedatutakoari jarraiki (Eusko Legebiltzarrak onartua, Euskadiko Autonomia Estatutuko 9. eta 10.13. artikuluen arabera).

Elkarte, irabazi asmorik gabekoa, honako hauek zuzenduko dute: Elkartei buruzko aipatu Legeak, honako estatutu hauek, gobernu-organoei behar bezala hartutako akordioek (betiere, Legearen edo elkartearen estatutuen aurka ez badoaz) eta Eusko Jaurlaritzak onartuko dituen erregelamenduzko xedapenek (hauek osagarriak baino ez dira izango).

LORTU ASMO DITUEN XEDEAK

2. artikulua.- Irabazi asmorik ez duen Elkarte honen xedea da autismoak eta bestelako espekto autistako nahasmenduei kaltetzen dituzten pertsonen eta horien familiartekoen onura sustatzea, laguntza-, hezkuntza-, jolas-, kultura-, kirol-, zientzia-, errehabilitazio-, enplegu- eta zaintza-jarduerekin bidez.

Aipatu xede horiek lortzeko, honako jarduerak hauek landuko dira: diagnosi- eta ebaluazio-zentroak sustatu, sortu, antolatu edo babestu; laguntza espezializatuko unitateak, ikerkuntza eta esperimenduzkoak; terapia-zentroak; pedagogia bereziko zentroak; egoitzak; lanerako gaitzeko unitateak; lantegi babestuak; ospitale-unitateak; osasun-zerbitzuak; eguneko zentroak; etxez etxeko laguntza-zerbitzuak; aisiarako eta familia-laguntzarako zerbitzuak, baliabideei buruzko aholkua emateko zerbitzua eta eskubideen babesa. Ekintza horiek Batzar Nagusiak onartuko dituen jarduerak-planen arabera gauzatuko

dira, eta indarrean dagoen legeriak ezarriko dituen betebeharrak eta baldintza teknikoak nahiz bestelakoak beteko ditu, baita eskumena duten erakundeek bideratuko dizkioten aginduak ere.

Aurreko atalean zehaztutako jarduerak ez dira eragozpen izango Elkarteak, bere xedeak betetze aldera, honako hauek egiteko:

- Edozein ekintza-mota garatzeko, bere xedeak gauzatzeko aldera edo horri begirako baliabideak lortzeko aldera.
- Mota guztietako ondasunak eskuratu eta edukitzeko edozein titulugatik, eta mota guztietako ekintzak eta kontratuak egiteko.
- Edozein ekintza gauzatzeko, legeek nahiz bere estatutuek xedatutakoaren arabera.

Betiere, kasu bakoitzean aplikagarria izango den araudi orokorrak eta zerga-araudiak eskatzen dituzten baldintzak beteta.

HELBIDE SOZIALA

3. artikulua.- Elkarte honen helbide soziala honako hau da: Gezala Margolariaren kalea 1-2, 48015 Bilbo. Elkarteak beste lokal batzuk eduki ditzake Euskal Autonomi Erkidegoan nahiz EAetik kanpo, Batzar Nagusiak hala erabakiz gero. Zuzendaritza-batzordeak hartuko du Elkartearen helbide soziala eta gainerako lokalak Bilbon bertan lekuz aldatzeko erabakia, eta helbide berriaren berri emango dio Elkartearen Erregistroari.

LURRALDE EREMUA

4. artikulua.- Bere jarduerak garatzeko lurralde-eremua nagusiki Bizkaiko lurralde historikoa izango da.

IRAUNALDIA ETA IZAERA DEMOKRATIKOA

5. artikulua . - 'Asociación de Padres de Afectados de Autismo y otros Trastornos del Espectro Autista de Bizkaia / BizkaikoAutismoa eta Beste Autismo Espektroaren Nahasteak dituztenen Gurasoen Elkarteak' izaera iraunkorra edukiko du, eta, VI. kapituluan xedatutakoaren arabera, soilik desegingo da Ezohiko Batzar Orokorrak hartutako erabakiz edo legeek aurreikusitako edozein arrazoiengatik.

BIGARREN KAPITULUA

GOBERNU ETA ADMINISTRAZIO ORGANOAK

6. artikulua.- Elkartearen gobernua eta administrazioa honako kide anitzeko organoen ardura izango dira:

- Batzar Nagusia, organo gorena.
- Zuzendaritza-batzordea, zuzendaritza iraunkorreko kide anitzeko organoa.
- Zuzendaritza-batzordeak batzorde iraunkor bat eratu ahal izango du bere baitan; organo betearazle berezia izango da, eta zuzendaritza-batzordeak espresuki emango dizkion eskumenak izango ditu.

Aipatu batzorde iraunkorrak lehendakaritza bat eta idazkaritza bat izango ditu (zuzendaritza-batzordearen berberak), eta horietara zuzendaritza-batzordeak bere baitan libreki izendatuko dituen bi kide bilduko dira. Nolanahi ere, bi ordezkari horiek beren kargua utziko dute zuzendaritza-batzordeko kide izateari uzten diotenean.

BATZAR NAGUSIA

7. artikulua.- Elkartea osatzen duten bazkideen borondatea adierazteko organoa da batzar nagusia. Ohiko eta ezohiko bilkurak egingo ditu.

8. artikulua . - Batzar Nagusiak ohiko bilera egingo du urtean behin gutxienez, urteko lehen sei hilabetekoan. Bilera horretan onartuko ditu elkartearen jarduera-plan nagusia, urteko memoria, aurreko urteko gastuen eta sarreren kontuen egoera, eta hurrengo urteko jarduera-programa eta aurrekontua, baita zuzendaritza-batzordearen kudeaketa ere; azken organo horrek batzar nagusiaren zuzentzarauak beteko ditu, eta haren kontrolpean egongo da.

9. artikulua.- Aurreko artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe, Batzar Nagusiaren eskumena da honako hauei buruzko erabakiak hartzea:

- a. Elkartearen jarduera-plan nagusia onartzea.

- b. Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertzea eta onartzea.
- c. Zuzendaritza-batzordearen kudeaketa onartzea.
- d. LEstatutuak aldatzea.
- e. Elkartea desagitea.
- f. Lehendakaria, lehendakariordea eta idazkaria, eta kide anitzeko organoetako gainerako kideak, halakorik balego, aukeratzea eta kargugabetzea, baita horiek gainbegiratzea eta kontrolatzea ere.
- g. Beste elkarte batzuekin federatzeko eta konfederatzeko, nahiz horietakoren batetik kanpo geratzeko egitateak.
- h. Ondasun higiezinak edukitzea nahiz besterentzea onartzea.
- i. Gobernu organoko kideei ordaintzeko erabakia, hala badagokio.
- j. Kuota arruntak edo bereziak ezartzea. Nolanahi ere, Batzar Nagusiak eskumen hori gobernu organoari eman diezaiotke horretarako berariazko erabakia hartuta.
- k. Elkartekideak behin betiko kanporatzeko akordioa hartzea.
- l. Herri-onurakotzat jotzea eskatzea.
- m. Helbide soziala udalerritik kanpora eramatea.
- n. Elkartearen beste organoren bati ez dagokion edo estatutuek Batzar Nagusiari ematen dioten beste edozein eskumen.

10. artikulua.- Batzar Nagusiak ezohiko bilera deituko du Zuzendaritza-batzordeak hala erabakitzen badu, bai batzordeak berak eskatuta, bai bazkideen ehuneko hamarrak, gutxienez, eskatuta. Bilera horren arrazoiak eta xedeak adierazi beharko dira, eta nolanahi ere, ondoko gai hauek ezagutzeko eta horiei buruz erabakitzeko deituko da:

- a. Estatutuak aldatzea.
- b. Elkartea desagitea.

11. artikulua.- Batzar Nagusiaren deiak (ohikoak nahiz ezohikoak izan, berdin) idatziz egingo dira, eta bilera egingo den lekua, data eta ordua jasoko dira

idazki horretan, baita eguneko aztergaiak ere, gaiak zehaztuta. Deia egiten denetik batzarra lehen deialdian egiteko adierazitako egunera bitartean gutxienez hamabost eguneko tartea egongo da. Halaber, Batzar Nagusia bigarren deialdian, hala balegokio, egiteko data ere jaso daiteke, eta lehen deialdiaren eta bigarrenaren artean gutxienez ordu erdi igaroko da.

Iragarkian bigarren deialdiaren data jasotzen ez bada, deialdi hori bilera egin baino zortzi egun lehenago egin beharko da.

12. artikulua.- Batzar Nagusiak, bai ohikoak bai ezohikoak, lehen deialdian baliozkotasunez eratuta geratuko dira horietan parte hartzen badu, bertaratuta edo ordezkatuta, boto eskubidea duen sozietateko pertsona kopuruaren erdiak baino gehiagok, eta bigarren deialdian horien kopurua edozein izanik ere.

13. artikulua.- Batzar Nagusietako erabakiak botoen gehiengoz hartuko dira.

ZUZENDARITZA-BATZORDEA

14. artikulua.- Zuzendaritza-batzordea Batzar Nagusiak eginkizun horretarako aukeratuko dituen bazkideek osatuko dute. Lehendakaria, lehendakariordea, idazkaria eta diruzaina edukiko ditu, eta bi kideetik bostera bitartean.

Bi hilean behin, gutxienez, egin beharko du bilera, eta sozietatearen jarduerak onak hala eskatzen duen guztietan.

15. artikulua.- Zuzendaritza-batzordearen bileretara bidezko arrazoirik gabe ez joateak (bitan jarraian edo lautan txandaka) batzordean duen kargua utzi behar izatea ekarriko du.

16. artikulua.- Lehendakaria, lehendakariordea, idazkaria, diruzaina eta kideak Batzar Nagusiak aukeratuko ditu lau urterako, batzarrak karguren bat berariaz baliogabetzea erabakitzen ez badu behintzat. Kideak mugarik gabe berraukeratuak izan daitezke.

Agintaldia bukatuta, beren eginkizunetan jarraituko dute batzordekide izendatu berriek beren karguaz jabetu bitartean.

Aukeratzea eta baliogabetzea estatutu hauek garatuz onar daitekeen barne-arabidean aurreikusitakoaren arabera erabakiko dira.

17. artikulua.- Honako baldintza hauek bete beharko dira zuzendaritza-batzordekidea izateko:

- a. Estatutuetan aurreikusitako moduan aukeratua izatea.
- b. Erakundeko kidea izatea.
- c. Adin nagusikoa edo adin txikiko emantzipatua izatea, eskubide zibil guztien jabe izatea, eta indarrean dagoen legeriak ezarritako bateraezintasunik ez izatea.

18. artikulua.- Zuzendaritza-batzordeko kargua nork bere gain hartuko du, batzar nagusiak aukeratuta, kideak kargu hori onartzen duenean edo karguaz jabetzen denean.

19. artikulua.- Zuzendaritza-batzordekideek beren kargua utziko dute halakoetan:

- a. Agintaldia amaitzen denean.
- b. Dimititzean.
- c. Bazkide izateari utzita, edo ezgaitasun-egoeran egonda.
- d. Estatutu hauetako 16. artikuluan xedatutakoaren arabera, batzar nagusiak karguduna baliogabetzea erabakita.
- e. Heriotzagatik.

Zuzendaritza-batzordeak berak aukeratuko ditu, behin-behinekoz, ordezkok "b", "c", "d" eta "e" kasuetan. Aukeratuek Batzar Nagusiaren berrespena edo baliogabetzea izango dute; azken hori gertatuz gero, batzarrak beste pertsona bat izendatu beharko du.

Organo horren osieran izandako aldaketa guztien berri emango zaio Elkarteen Erregistroari.

20. artikulua.- Zuzendaritza-batzordearen eginkizunak dira:

- a. Elkartearen kudeaketa arrunta bideratzea, Batzar Nagusiak ezarritako zuzentarauen arabera, eta batzarraren kontrolpean.

- b. Elkartek garatu beharreko jarduerak programatzea.
- c. Gastuen eta sarreren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera batzar nagusiari aurkeztea horrek onar ditzan.
- d. Batzar Nagusiak egingo dituen bileren eguneko aztergaiak lantzea, eta ohiko zein ezohiko batzar nagusietarako deia erabakitzea.
- e. Bazkideek egingo dituzten proposamenak edo iradokizunak jasotzea, eta horien inguruko neurri egokiak hartzea.
- f. Batzar nagusiari berariaz emandako beste edozein eginkizun.

21. artikulua.- Zuzendaritza-batzordea lehendakariak edo, hala dagokionean, lehendakariordeak erabakitzen duen guztietan batzartuko da, bai beren erabakiz, bai edozein batzordekidek hala eskatuta. Lehendakaria izango da bileren buru, eta bera ez badago, lehendakariordea. Biak faltan badira, adinez zaharrena den batzordekidea izango da buru.

Batzordeak hartutako erabakiak baliozkoak izan daitezen, gutxienez batzordekideen erdiak egon beharko du bileran. Bertan direnen botoen gehiengoz hartuko dira erabakiak.

Idazkariak bileren akta egingo du, eta dagokion liburuan transkribatuko da..

22. artikulua.- Erabaki guztiak bileran direnen botoen gehiengoz hartuko dira, zenbait egitatetarako nahiz erabakitarako xedapenek bestelako quoruma eskatu ezean. Berdinketa gertatuz gero, bozketa errepikatuko da, eta berriro ere berdinketa gertatuz gero, mozioa atzera botako da. Elkarteei buruzko dagokion erregistroan jasoko dira legeen arabera erregistratu beharreko akordioak.

23. artikulua.- Zuzendaritza-batzordeak eta Batzar Nagusiak egingo dituzten bileren akta jasoko da. Lehendakariak eta idazkariak akta horiek sinatuta, batzordearen eta batzarraren bilerentzat komuna izango den akta-liburuan jasoko dira.

24. artikulua.- Lehendakariak egoki deritzon denboran eta epean eten ahal izango ditu bilkurak, egoki irizten dionean. Etenaldi hori sekula ez da hamabost egun naturaletik gorakoa izango.

25. artikulua.- Elkartearen jarduera-esparrua kontuan hartuta, Zuzendaritza-batzordearen erabakiz, bere bilerak zein Batzar Nagusiarenak helbide sozialarena ez den beste udalerriren batean egin daitezke.

KIDE BAKARREKO ORGANOAK

LEHENDAKARITZA

26. artikulua.- Elkartearen lehendakariak izango du elkartearen ordezkaritza legala, eta Zuzendaritza-batzordeak eta Batzar Nagusiak hartutako erabakiak beteko ditu, bi organo horien zuzendaria izanik.

27. artikulua.- Lehendakariari dagozkio Zuzendaritza-batzordeari edo Batzar Nagusiari berariaz ez dagozkion eskumenak, eta bereziki honako hauek:

- a. Zuzendaritza-batzordeak eta Batzar Nagusiak egingo dituzten bileren deiak egitea; bilerak bukatutzat ematea; bileretan sortzen diren eztabaidak zuzentzea; eta boto-berdinketa gertatuz gero, boto ebazleaz erabakitzea.
- b. Elkartearen ekintzen egitasmoa Zuzendaritza-batzordeari proposatzea, eta aldi berean, elkartearen zereginak bultzatzea eta zuzentzea.
- c. Balioz erabakitako ordainketak egitea agintzea.
- d. Sortu daitezkeen premiazko arazoak konpontzea, eta Zuzendaritza-batzordeari horien berri ematea lehenengo bilkuran.

LEHENDAKARIODETZA

28. artikulua.- Lehendakariordeak lehendakariari lagunduko dio, eta, presidenteak aldi baterako ezintasuna daukanean, ordezkatu egingo du. Era berean, presidenteak berariaz emandako ahalmen guztiak izango ditu.

IDAZKARIA

29. artikulua.- Idazkariari dagozkio, zehazki, elkartean sartzeko eskabideak hartu eta bideratzea, fitxategia eta bazkideen erregistro-liburua zaintzea, eta akta-liburua zaintzea eta idaztea.

Era berean, elkarteen arloan indarrean dauden legezko erabakiak bete daitezten arduratuko da, eta erakundearen agiri ofizialak zainduko ditu, elkartearen liburuen eta agirien edukia egiaztatuko ditu, eta Zuzendaritza-batzordearen hautaketari eta elkartearen egoitza aldatzeari buruzko beharrezko jakinerazpenak dagokion agintaritza eskudunari bideratuko dizkio.

DIRUZAINA

30. artikulua.- Egindako sarrera eta ordainketen berri emango du diruzainak, eta, halaber, diru-sarrera eta gastuen urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoeraren berri ere emango du. Horiek guztiak Zuzendaritza-batzordeari aurkeztuko dizkio, eta horrek, berriz, Batzar Nagusiari, onar ditzan.

30. Bis artikulua.- Kapitulu honetan adierazitako kargu guztiak doakoak izango dira, eta horietan daudenek ez dute interesik izango erakundearen ekonomia-emaitzetan, ez berez, ezta beste pertsona baten bidez.

HIRUGARREN KAPITULUA

BAZKIDEAK: BALDINTZAK, ONARTZEKO PROZEDURAK ETA MOTA

31. artikulua.- Elkartekide izan nahi eta honako baldintza hauek betetzen dituzten guztiak izan daitezke elkarteko bazkide:

Adin nagusikoa edo adin txikiko emantzipatua izatea, bere eskubideak gauzatzeko inolako lege-baldintzaren pean ez egotea, eta, era berean, ebazpen judizial irmoz bere gaitasuna mugatua ez edukitzea. Pertsona juridikoen kasuan, nahitaezkoa izango da bazkide egiteko nahia jasotzen duen organo eskudunaren berariazko erabakia, eta elkartean ordezkatzeko duen pertsona izendatzea..

32. artikulua.- Hiru bazkide-mota egongo dira:

- Bazkideak (arruntak): autismoak eta bestelako espektriko autistako nahasmenduek kaltetzen dituzten pertsonak (legezko gaitasuna aldatua ez badute), edo autismoak eta bestelako espektriko autistako nahasmenduek kaltetzen dituzten pertsonen gurasoak nahiz egoera horretan daudenen ordezkariak legala duten pertsona fisikoak nahiz juridikoak.
- Bazkide laguntzaileak: aurreko artikuluan xedatutako baldintzak ez beteta ere, elkartearen xedeak eta helburuak lortzen eta elkartea mantentzen lagunduko duten pertsonak. Bazkide laguntzaileak Zuzendaritza-batzordearen onespena beharko du beti
- Ohorezko bazkidea: elkartearen mesedetan ohiz kanpoko laguntza eman duten pertsona fisikoak nahiz juridikoak. Ohorezko bazkideak dira soil-soilik, ez dute, hortaz, inolako betebeharririk.

BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

33. artikulua.- Bazkide guztiek honako eskubide hauek dituzte:

1. Elkarteei buruzko Legearen edo estatutuen kontrako erabakiei eta jardueri aurka egitekoa, aurkatutako erabakiaren edukia ezagutu edo ezagutzeko aukera izan duen egunetik hasi eta berrogei egun naturaleko epean.
2. Elkarteko beste bazkideen nortasuna, diru-sarrera eta gastu-kontuen egoera, eta elkartearen ekintzen garapenaren berri uneoro jakitekoa, datu pertsonalak babesteari buruzko araudian aurreikusitakoa betez.
3. Batzar nagusietan hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea erabiltzea, eta eskubide hori beste bazkideren baten esku utzi ahal izatekoa. Botoa emateko eskubide izango du soilik autismoak eta bestelako espekro autistako nahasmenduek kaltetzen duten pertsona bakoitzaren legezko ordezkari bakar batek, honek ordezkatzeko dituen kaltetuak zenbat-nahi direla ere.
4. Elkarteko estatutu hauen arabera, elkartearen zuzendaritza-organoei parte hartzeko, eta organo horietarako hautagai nahiz hautesle izatekoa.
5. Eskubide hori gauzatzeko, aurreko atalean (hirugarrena) ezarritako irizpidea beteko da.
6. Indarrean diren legeetan zehaztutako bazkide-liburu/fitxategian agertzeko, eta elkartearen ikurra erabiltzeko, elkarteak halakorik balu behintzat.
7. Estatutuen eta, egonez gero, barne-araudiaren ale bana edukitzea, eta zuzendaritza-organoei eskakizunak eta kexak aurkezteko.
8. Elkartearen talde-ekintzetan parte hartzeko, eta bazkideen erabilerako gauzak erabiltzeko (elkartearen egoitza, liburutegiak, eta abar), Zuzendaritza-batzordeak, kasuan kasu, erabakitako moduan.
9. Zigorze-neurriak hartu baino lehen, bazkideak idatziz adierazitakoa kontuan hartzeko, eta neurri horiek hartzea eragin duten arrazoiei buruz azalpenak jasotzeko. Neurri horiek hartzeko arrazoiak bazkideei

dagozkien betebeharrak ez betetzean oinarritu daitezke soilik.

34. artikulua.- Bazkideen betebeharrak honako hauek dira:

- a. Elkartearen helburuak gauzatzeko lankidetzak aktiboa ematea.
- b. Batzar Nagusiak ezarritako kuota ordaintzea, gastuei aurre egite aldera.
- c. Estatutu hauek eta elkartearen zuzendaritza-organismoek balioz hartutako erabakiak onartzea eta betetzea.

ZEHAPEN ARAUBIDEA

35. artikulua.- Zuzendaritza-batzordeak bazkideak zigortu ahal izango ditu estatutuak edo batzar nagusiak nahiz Zuzendaritza-batzordeak hartutako erabakiak behin eta berriz hausteagatik.

Eskubideak 15 egunetik hilabetera bitarte kentzetik, elkartetik betirako egozterainokoa izan daiteke zigorra, 34. artikulutik 37ra bitartekoetan jasotakoaren arabera.

Ondorio horietarako, lehendakariak zigorgarri izan daitezkeen jokabideak aztertzeke ikerketa egiteko erabakia hartu ahal izango du. Ikerketa horiek idazkaritzak eramango ditu aurrera, eta Zuzendaritza-batzordeari neurri egokiak hartzeko proposatuko dio. Zuzendaritza-batzordeak izango du zigorra ezartzeko ahalmena, eta zigorra ezarri aurretik interesatuak adierazitakoa kontuan hartu beharko da.

Erabaki horren arrazoiak emango dira beti, eta haren aurkako errekurtsioa jarri ahal izango da batzar nagusiaren aurrean, 33.1 artikuluan zehaztutako ekintzen kalterik gabe. Erabakia bertan diren bazkideen eta ordezkarien 2/3en aldeko oniritziarekin hartuko da, egoera horretan dagoen bazkideari legozkiokoen lege-ekintzei kalterik egin gabe.

BAZKIDETZA GALTZEA

36. artikulua.- Bazkidetza honako kasu hauetan galduko da:

- a. Heriotza.
- b. Bazkideak bere borondatez utzita.
- c. Zuzendaritza-batzordeak erabakitako zigorra dela-eta, honako kasu hauetan:

Estatutuotatik eratorritako betebeharrak eta Batzar Nagusiak eta Zuzendaritza-batzordeak balioz hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak larriki, behin eta berriz eta nahita haustea.

Familiakoa nahiz ordezkaturia hiltzeak ez dakar bazkidetza galtzea.

37. artikulua.- Bazkideren bat aurreko artikuluko c) atalean xedatutako azken inguruabarrean balego, lehendakariak agindu liezaioke idazkariari, gertaeren berri izatearren, aurretiazko eginbide batzuk egitea. Eginbide horiek ikusita, lehendakariak ekintzak bertan behera uztea, zehapen-espeditentari (35. artikuluan zehaztutakoaren arabera), nahiz bazkidetza galtzeko espeditentari hasiera ematea erabaki lezake.

Azken kasu horretan, idazkariak, egintzak egiaztatu ondoren, idatzi bat bidaliko dio egoera horretan dagoen pertsonari, leporatzen zaizkion salaketen berri emateko. Salaketa horiei erantzuteko, bere aldeko arrazoiak azaldu ahal izango ditu hilabeteko epean. Epe hori amaituta, nolana ere, Zuzendaritza-batzordeko lehenengo bilkurara eramango da kasua, eta bertan hartuko da hartu beharreko erabakia. Horretarako, batzordekideetatik % 51ko quoruma behar izango da.

38. artikulua.- Elkartetik kanporatzeko erabakia interesdunari jakinaraziko zaio, eta, halaber, jakinaraziko zaio hurrengo Ezohiko Batzar Nagusiaren aurrean erabakiaren aurkako errekurtsoa aurkez dezakeela. Hiru hilabeteko epean batzarrerako deirik egiten ez bada, errekurtsoa aztertzeko soilik antolatu beharko da. Bien bitartean, lehendakariak bazkideari bere eskubideak kentzea erabaki dezake, eta Zuzendaritza-batzordeko kide bada, kargu hori utzarazi beharko dio.

Kanporatzeko espedientea Batzar Nagusiari aurkeztuz gero, idazkariak espedientearen laburpena egingo du, Zuzendaritza-batzordeak interesatuak aurkeztutako idatziaren eta egintzen berri zehatza Batzar Nagusiari eman ahal izateko, azken horrek dagokion erabakia har dezan.

39. artikulua.- Kanporatze-erabakia, arrazoitua beti, dagokionari jakinaraziko zaio eta horrek, bere eskubideaz baliatuz, auzitegietara jo ahal izango du; bere iritziz, erabakia legearen edo estatutuen aurkakoa bada.

40. artikulua.- Bazkideren bati kanporaketaren berri ematerakoan (berak nahi izanda edo zigorra ezarri zaiolako) bete gabe dituen betebeharrak betetzeko eskatuko zaio, hala badagokio.

LAUGARREN KAPITULUA

SOZIEATEAREN ONDAREA ETA AURREKONTU ARAUBIDEA

41. artikulua.- Elkartea hasierako ondare honekin eratu da: eurorik gabe.

42. artikulua.- Elkarreak, bere jarduera garatzeko, honako diru-baliabide hauek aurrekusten ditu:

- a. Zuzendaritza-batzordeak ezarritako sarrera-kuotak.
- b. Zuzendaritza-batzordeak erabakitako aldizkako kuotak.
- c. Dagozkion ondasunetatik eta eskubideetatik ateratzen dituenak, baita legez jaso ditzakeen diru-laguntzak, ondareak eta dohaintzak ere.
- d. Estatutuen helburuak kontutan harturik, Zuzendaritza-batzordeak erabakitako ekintza bidezkoek dakartzaten irabaziak.

Elkarreak lortutako baliabideak ez dira, ezein kasutan, bazkideen artean banatuko.

43. artikulua.- Ekonomi ekitaldia bat etorriko da urte naturalarekin.

44. artikulua.- Ekonomi ekitaldi bakoitzean aurrekontu arrunt bat landuko da elkarrearen ohiko jarduerak izango dituen diru-sarrera eta gastu arruntekin, elkarrearen jarduera-egitarau orokorra betetze aldera.

45. artikulua.- Aparteko aurrekontuak izango dira izaera bereko xedeei edo jardueri aurre egiteko onartutakoak, horiei dagozkien planaren edo egitasmoaren arabera.

46. artikulua.- Aparteko aurrekontuen aurreikuspenak aurrekontu horiek onartuko diren ekonomi jarduerarekin bat etorriko den (edo ez) epeari dagozkionak izan daitezke, eta diru-sarreraren partidari ere apartakoak izango dira, besteak beste: egin daitezkeen kreditu-eragiketaren zenbatekoa, bazkideen nahiz hirugarren pertsonen derramak edo ekarpen osagarriak, eta aurrekontu arruntaren soberakinak.

47. artikulua.- Aurrekontu arruntak zein apartekoak orekatuak izango dira, eta gastuen aurreikuspenek ez dituzte sarrera-aurreikuspenak gaindituko.

48. artikulua.- Aurrekontu arruntetan, kitapenak Zuzendaritza-batzordeak prestatuko ditu behar adinako denborarekin, Ohiko Batzar Nagusiak behar bezala azter ditzan.

49. artikulua.- Aparteko aurrekontuen kitapenak ere Zuzendaritza-batzordeak prestatuko ditu. Honek, aurrekontu horren gauzatze-epea bukatu eta hurrengo bi hilabeteren barruan, Ezohiko Batzar Nagusia deitu beharko du, aipatu kitapena aztertze aldera.

50. artikulua.- Ekonomi ekitaldi bakoitzean, kontabilitatea balantze baten bidez itxiko da, eta horretan elkartearen egoera ekonomikoa eta ondarekoa jasoko da.

BOSGARREN KAPITULUA

ESTATUTUAK ALDATZEA

51. artikulua.- Estatutuak Zuzendaritza-batzordeak berak bultzatuta alda daitezke, edo batzordeak hartutako erabakiz baldin eta bazkideen % 50ak hala eskatuta. Edonola ere, Zuzendaritza-batzordeak hiru bazkidek osatutako lantaldea aukeratuko du, Zuzendaritza-batzordeak finkatutako ildoetara jarraiki estatutuak aldatzeko proiektua idatz dezan. Zuzendaritza-batzordeak aipatu aldaketa-proiektua bukatzeko epea finkatuko du.

52. artikulua.- Aipatu epearen barruan estatutuak aldatzeko proiektua idatzita, lehendakariak hurrengo Zuzendaritza-batzordearen bileraren aztergaietan sartuko du gaia. Zuzendaritza-batzordeak proiektua onartu, edo lantaldeari itzuliko dio berrazter dezan.

Estatutuak aldatzeko proiektua onartuz gero, Zuzendaritza-batzordeak hurrengo Ezohiko Batzar Nagusiaren aztergaietan sartuko du, edo horretarako propio egingo du Batzar Nagusirako deia..

53. artikulua.- Batzarrerako deiarekin batera, estatutuak aldatzeko testua bidaliko da, bazkideek egoki deritzoten zuzenketak Idazkaritzan aurkez ditzaten. Zuzenketa-proposamen horien berri emango zaio Batzar Nagusiri, betiere batzarra egin baino zortzi egun lehenago Idazkaritzan jaso badira.

Zuzenketak banaka nahiz taldeka egin daitezke; idatziz egingo dira, eta beste testu-aukera bat izan beharko dute.

SEIGARREN KAPITULUA

ELKARTEA FUSIONATZEA ETA DESEGITEA, ETA ELKARTE ONDAREAREN ZERTARAKOA

54. artikulua.- Ezohiko Batzar Nagusiak batzarrean diren bi herenen aldeko botoekin erabaki dezake elkarte antzeko jarduera, berdina edo parekoa duen irabazi asmorik gabeko beste elkarte nahiz erakunde batekin bat egitea.

55. artikulua.- Erabakia aipatu elkarte edo erakunde horietakoren batera bat-egitez biltzearen aldekoa balitz, desegite egoeretako xedatutakoak aginduko du, eta erakunde bereganatzaileari emango zaizkio 'Asociación de Padres de Afectados de Autismo y otros Trastornos del Espectro Autista de Bizkaia / Bizkaiko Autismoa eta Beste Autismo Espektroaren Nahasteak Dituztenen Gurasoen Elkartearen aktibo eta pasibo guztiak, eta elkartearen nortasuna iraungiko da.

56. artikulua.- Elkarte desegingo da:

1. Bazkideek hala nahi dutelako. Nahi hori horretarako bildutako Batzar Nagusian azaldu beharko da, eta bertan daudenen erabateko gehiengoaren botoak jaso beharko ditu.
2. Kode zibileko 39. artikuluan xedatutako arrazoiengatik.
3. Epai judizialak hala ebatzita.

57. artikulua.- Elkarte deseginez gero, erabakia hartu duen batzar nagusiak kitapen-batzordea izendatuko du. Batzorde hori Zuzendaritza-batzordeko lau kidek osatuko dute, eta dagoen diruaz arduratuko da.

Bazkideekiko eta besteekiko betebeharrak bete ondoren geratzen den elkarte-ondarea, geratzen bada behintzat, balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako sozietate izaera duen, eta bere osotasunean edo zati batean elkarte honekin bat datozen xedeak eta lurralde-eremua dituen instituzioari edo irabazi asmorik gabeko erakundeari emango zaio, hau da, berez edo

Zuzendaritza-batzordeak proposatuta Batzar Nagusiak izendatu duenari iraugitzea edo desegitea erabakitzean.

AZKEN XEDAPENAK

LEHENA.- Zuzendaritza-batzordea izango da estatutu hauetan azaltzen diren aginduak interpretatu eta hutsuneak beteko dituen organo eskuduna; betiere, elkarteei buruz indarrean dagoen araudiaren arabera, eta egingo den lehen Batzar Nagusiari egindako guztiaren berri emanda, honek onar dezan.

BIGARRENA.- Estatutu hauek Zuzendaritza-batzordeak eta Batzar Nagusiak, bakoitzak berari dagokion eskumenaren barruan, balioz hartzen dituzten erabakien bidez aldatuko dira, betiere bosgarren kapituluan esaten dena betez.

HIRUGARRENA.- Estatutu hauek garatzeko, Batzar Nagusiak barne-araudia onar dezake. Horrek ez ditu inolaz ere estatutuetako preskripzioak aldatuko.